

ERRONKA, POLITIKOA, EKONOMIKOA ETA IDEOLOGIKOA DA

Atarratze (2006.8.12)

Politika zientzia konplexua da eta zientzia guztien bezala emaitzek erakusten dute praktikaturako politika egokia edo okerrekoa izan den. Arerioa bere borondatearen aurka behartzean oinarritzen da politika. Historiak erakutsi digu herrien biziraupena zihurtatzen duen aktibitatea dela.

Euskal Herriak Orreagako guduan autodeterminatu eta Nafarroako erresumaren garaian praktikatu zuen politikarik zehatzena. Baina 1200. eta 1512.ko estatuaren defentsarako gerrak galdu eta herriaren boterea ahultze bidean ipini zen.

Faxismoa onartua dagoen munduan bizi gera eta bere helburuak betetzeko adina botere du gainera. Faxismo modernoak, egoerak hala eskatuta, bitartekoak leundu ditu baina helburuak faxismo tradizionalaren bezain kriminalak izaten jarraitzen dute. Faxismo modernoaren bitartekoen leuntze honek zailagoa bihurtu dute antzematen, inoiz egin diguna baino kalte haundiagoa egiten ari zaigularik.

Botere ideologikoak garrantzi izugarria jokatzen du egungo faxisten helburu genozidak aurrera eramateko orduan. Botere ideologikoak jendearen jarreran eragiten du, eta jendea herri baten altxorrik preziatuena da.

Euskal Herria biziko bada goren mailako politikariak behar ditu, estatuaren errekurtsioak era baliagarri batean erabiltzen jakingo duena. Askatasuna klase politiko egokiak eta herriak bat egitean berreskuratuko dugu soilik. Nafar Erresuma herria eta klase politiko egokiaren arteko sinbiosiak bihurtu zuen errealtate.

Azkenaldian "autodeterminazioaz hitzegitea" modakoa egin dute. Absurdo baten inguruan hainbat urte igaro ditzakegu berbetan irtenbiderik gabeko kale batetara heldu garela konturatu aurretik. Borroka ideologiko honetan arerioak elitea soilik du lanean (prentsa, ejerzitoa, politikariak...), beraz esfortsu gutxirekin min haundia egiten dute. Ideologia inperialista erresistentziarik aurkitu gabe barneratzen da "gure telebista eta irratieta", herria monigote bat balitz bezala porrot batetik bestera daramatelarik, eta denok dakigu porrotek zenbat nekatzen duten.

Askatasuna ez da eskatzen den zerbait, lortu egiten da. Askatasuna eskatzea sentzugabekeria da, arlo politikotik at dagoen eskaera. Herri bat, besteekiko duen botere gaitasunak autodeterminatuko du, arlo politiko, ekonomiko eta ideologikoan arerioari eragin diezaiokeen minaren inguruan antolatutako borrokak autodeterminatuko du, ez beste ezerk.

Euskal Herriaren eztabaida, arerioari noiz, non eta nola bere borondatearen aurka behartu behar zaion da. Azaleko eztabaida faxismoaren aldekoa da beti, gurea sakonekoa, askatasunera eramango gaituena da.

Erronka gurea da, politikoa, ideologikoa eta ekonomikoa.